

Aurkibidea

Aurkezpena	3
140 Urteurrena	4
Gizarte esku-hartzea eta enplegua	6
Osasuna, Sorospena eta Larrialdiak	10
Boluntarioria eta prestakuntza	13
Nazioarteko Lankidetzak	17
Gazteria	19
Ingurumena	20
Komunikazioa eta irudia	21
Gipuzkoako Gurutze Gorria	22
Ekonomia-kudeaketa	26
Kalitatea	28
Finantzaile eta laguntzaileak	29

Aurkezpena



2010 urte hau urte intentsua izan da, aldaketak etengabeak izan dira, eta agertoki sozioekonomiko berriaren arabera gure interbentzioa aldatzen ibili behar izan dugu. Gipuzkoako Gurutze Gorriako ere urte garrantzitsua izan da, 140 urte bete ditugu-eta.

Gipuzkoako Gurutze Gorrian bide luzea egin dugu dagoeneko, etenik hartu gabe, kudeaketa, komunikazioa eta prestakuntza hobetzen. Boluntarioak dira gure oinarria, eta batzuen eta besteen ahalmen eta gaitasuna ahalik eta gehien baliatzen ahalegintzen gara, talde dinamiko eta elkarri lotua sortzeko, inor kanpoan utzi gabe. Erakunde eraginkorra eta arduratsua izan nahi baitugu, probintzia osoko boluntarioen lanagan oinarritua, herrietako eta eskualdeetako batzarrez ehundutako sarea osatuz. Gaur egun, Gipuzkoako Gurutze Gorriak 16 batzar ditu, eta probintzia mailako bulegoa, foru-lurralde guztian hedatuta. Arrakastaren gakoa da gure laguntza behar duten lekuan hantxe egokitzen asmatzen dugula, eta egin beharreko lana egiteko beharrezko prestakuntza eta baliabideak baditugula. Oso garrantzitsua da batzar guzti-guztiek beren izaera bereizgarria izatea. Kalean eta kalekoekin egoteko sortu diren erakundeek oinarrian hartu behar dute indarra, eta oinarriari horri eman indarra. Kasu honetan, oinarri hori herrietako batzordeak dira.

Gizarte esku-hartze programetarako baliabideak behar ditugu, batez ere, gainbehera sozioekonomiko latz honetan, kolokan daudenei laguntzeko ekimenetarako. Alegia, edozelako bolada txarren aurrean babesik gabe daudenei, halabeharrari aurre egiteko gaitasunik gabeei, laguntzeko. Ahalegin handia egiten dugu programa horiek lantzen, horretara jartzen dugu gure aurrekontuaren hein handiena, eta, halere, premia asko bete gabe geratzen dira. Zulodun zorroa dira. Hala eta guztiz ere, kinkan direnei laguntza emateko prest jarraitu behar dugu, lehenengo ilaran, beren eskubideak defendatzeko. Gizakiaren balioekiko errespetuan oinarritutako ikuspegia emanda lantzen dugu gizarteratzea, horrela nahi dugu landu, arazoak hainbat ikuspegitatik eta hainbat diziplinaren bitartez aztertuz; eta kontuan hartuz kultura ezberdinak, generoa, sareko lana, eta arriskuan diren banako eta taldeekiko hurbil egon behar dugula.

Bukatzeko, eskerrik asko Gipuzkoako Gurutze Gorriaren familia osatzen duzuen 13.000 bazkide, 2.500 boluntario, eta 200 langileri. Eskerrak zuen ekarpenengatik eta zuen lankidetzagatik eta, nola ez, eskerrak erakundeek ere, batez ere eta bereziki, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta gure probintziako udalei, memoria honetan erakusten diren lorpenak haiekin sinatutako hitzarmen eta dirulaguntzen emaitza baitira.

Enrique Samaniego Arrillaga
Gipuzkoako Gurutze Gorriaren presidentea

140

1870|2010

Urteurrena



Gipuzkoako Gurutze Gorriak 140 urte bete ditu pertsona guzti-guztien bizitza, osasuna eta duintasunaren alde lanean.

Gipuzkoako Gurutze Gorriak, 2010eko uztailaren 15ean 140 urte bete zituen. 1870. urtean, José Ramón de Sagastumek Gurutze Gorria eratu zuenetik, Gipuzkoan gerretan zauritutako militarrei laguntzeko, aurrera eta aurrera egin du Gurutze Gorriak; gaur egun, hurko minberenen premiak betetzera egokitu du bere jarduna. Hala, gizartean baztertuta geratzeko arriskua daukatenen alde egiten du erakundeak: zailtasun sozialak dituzten emakumeak, tratu txarrak jasandakoak, etorkinak, edadetuak eta menpekotasun egoeran bizi diren pertsonak, ezintasunen bat dutenak, gizarteratzeko zailtasunak dituzten ume eta gaztetxoak, eta abar.

Eta horien alde lan egiteko, gipuzkoarren laguntza eta lankidetzat dira Gurutze Gorriaren heldulekua. Horretarako, **13.000 bazkideetik gora** ditu Gipuzkoan, eta **2.500 boluntario** inguru; horien solidaritate eta laguntza da Gurutze Gorriaren indarra.

140. urteurrena ospatzeko, hainbat oroi-ekintza egin dira. Gipuzkoako Foru Aldundiak omenaldia egin zion gure erakundeari, Gipuzkoan burututako lanaren esker onez. Gipuzkoako Diputatu Nagusi Markel Olanok foruak zin egiteko beirategiaren erreproduzioa eman zien erakundeko arduradunei, egindako lan eskerga nolabait eskertu nahian; eta Gipuzkoako Gurutze Gorriko presidentek, Enrique Samaniegok, aldi berean, Gipuzkoako Gurutze Gorria osatzen duten 16 toki-batzarren armarrak irudikatzen dituen koadroa oparitu zion diputatuari.

Halaber, hilabete horretan bertan, Bedaion omenaldi xumea egin zitzaion Gipuzkoako Gurutze Gorria era-

tu zuen José Ramón de Sagastumeri. Gipuzkoako Gurutze Gorriaren presidentek eta Tolosako alkate Jokin Bildarratzek oroi-plaka bat bistaratu zuten, gure erakundearen sortzaileak egindako lan eskergaren adierazgarri. Ekitaldia bukatu eta biribiltzeko, bazkaria egin zuten Adunako sagardotegi batean; Gurutze Gorriko ehunka boluntario eta langile batu zituen ospakizunak.



Erakundeko 140 bazkide aintzinekoei omenaldia

140. urteurrena ospatzeko oroitzu-ekitaldien barruan, Gipuzkoako Gurutze Gorriak denbora gehien daramaten 140 bazkideei omenaldia eskaini nahi izan zien. Bazkideei diploma bana emanda, Gurutze Gorriaren arduradunek jendaurrean aitortu nahi izan zieten hamarkada joan eta hamarkada etorri, inongo baldintzarik gabe, gizartearen aldeko lana eginez,

erakundeari eman dioten laguntza. Donostiako Parke Teknologikoan izan zen ekitaldia, abenduaren 2an.

Gipuzkoako Gurutze Gorriaren presidente Enrique Samaniegok eskerrak eman zizkien bazkideei, urte hauetan guztietan erakundearekin konpromiso, solidaritatez eta leialtasunez jokatu izanagatik.



Gizarte esku-hartzea eta enplegua

Gure eginkizuna da arrisku handiena dutenen bizi-kalitatea hobetzea, autonomia izan dezaten laguntzea eta gizarteratzea. 2010. urtean 3.981 pertsonari lagundu diegu.

Gipuzkoako Gurutze Gorriaren Gizarteko esku-hartze sailak pertsona ahulei laguntzen die, beren bizi-kalitatea hobetu dadin. Gizartean parte hartze handiagoa izan dezaten ahale-gintzen da, ekonomi, gizarte, kultur edo osasun esparruetan egun ez dituzten aukerak izan ditzaten.

Gipuzkoako Gurutze Gorriak sarean egiten du lan, hainbat proiekturen bidez Gipuzkoan bere eginkizuna betetzeko. Edadeko pertsonekin, ezintasunen bat dutenekin, etorkinekin, asiloa eskatu dutenekin, errefuxiatuekin, ume, emakume, gazteekin eta espetxeratuekin lan egin, eta gizarteratzeko programak eskaintzen ditu. Gurutze Gorriak Gipuzkoan egiten dituen gizarte-arloko programa gehienak Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikaren Departamentuarekin hitzartuta daude.

Etorkinak eta errefuxiatuak

Etorkinak eta errefuxiatuak dira gizartetik baztertuta geratzeko arrisku gehien dutenak. Eta horien artean, are kinka larriagoan daude egoera administratibo erregularra ez dutenak eta gauzatu ezin den kanporatze-agindua jarria dutenak. Etorrinek arriskua izaten dute, oro har, gizartean eta lanean baztertuta geratzeko eta, batzuetan, kosta egiten zaie lanean irautea edo lanean gora egitea.

Proiektuak	Lagundutakoak
Lehenengo harrera, eta gizarteratzea	585
Egonaldi ertaineko zentroak	110
Errefuxiatuentzako informazioa eta aholkularitza	21
Kultura arteko bitartekaritza	300
GUZTIRA	1.016

Enplegu Planaren bidez pertsona ahulenak lan-merkatuan sartu, mantendu eta gora egiten laguntzen dira, bereizkeriaren aurka borroka eginez eta lanean berdintasuna sustatuz. Bakoitzari bere ibilbide zehatza egiten zaio, eta honako hau eskaintzen da: prestakuntza, orientazioa, bitartekaritza eta sentsibilizazioa. Europako Gizarte Funtsak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, La Caixa erakundeak eta Irungo Udalak finantzatzen ditu programok.

ENPLEGU PLANA - proiektuak	Lagundutakoak
Informazio-eta orientazio-zerbitzua	814
Red Interlabora	481
Incorpora	107
GUZTIRA	1.402

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak

Genero-indarkeriaren kontrako borroka, biktimei laguntza ematea eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea, horiexek dira Gurutze Gorriaren lehentasunak. Mugikor bidezko urrutiko laguntzak honakoa ematen du: alarmetara adi egotea etengabe gau eta egun, 24 orduz; urrutitik kokalekua asmatzeko aukera (GPS + GSM); agenda zerbitzua; baliabideak kudeatu eta aktibatzea; laguntza psikikoa eta gizarteratzeko laguntza, Harrera Zentrotik, eguneko 24 orduetan, eta Gurutze Gorriko beste zerbitzu batzuetan integratzea. 2010ean, genero-indarkeria pairatutako 4 emakume lagundu ditugu.



Arazo sozialak dituzten haurrak eta gazteak

Gizartean babesik gabe eta arriskuan dauden haurrak eta gazteak zaintzea funtsezkoa da Gurutze Gorriarentzat. Umeen eskubideak babesteko eta bermatzeko proiektuak lantzen ditugu horretarako.

Proiektuak	Lagundutakoak
CRoNO - heldurik gabeko adin txikikoak	78
18 urtetik gorako gazteentzako laguntza	136
Burujabetzeko pisuak	53
Migrazio prozesuetan dabilzan emakumeen kontziliazioa	79
Pisuetan lan egiten duten boluntarioak	35
GUZTIRA	381

Menpekotasun egoeran bizi diren pertsonak

2010. urtean, **Etxeko laguntza osagarria** programaren barruan, **Produktu lagungarrien** zerbitzua jarri dugu abian, edadetu edo ezintasunaren bat duten pertsonentzat bereziki. Zerbitzu honen bitartez, hainbat produktu lagungarri jarri nahi ditu Gurutze Gorriak mugitzeko arazoak dituzten edadetu eta ezintasunaren bat dutenen esku. Produktu horiek autonomia handiagoa izateko aukera ematen diete mugitzeko arazoak dituzten pertsonen, eta eguneroko bizimoduan egokitzen zaizkien zailtasun askori aurre egiten laguntzen diete, hainbat motatako ezintasun edo eskasiak (mugitzeko, ulertzeko, orientatzeko eta abar) prebenitzeko, konpentsatzeko edo arintzeko balio baitute.

Proiektuak	Lagundutakoak
Garraio egokitua	516
Aisialdia eta denbora libre	161
Etxeko laguntza osagarria	53
Produktu lagungarriak	18
GUZTIRA	748

Kartzela eta berriz gizarteratzea

Kartzela eta berriz gizarteratzea delako proiektuak Donostiako espetxean askatasuna kenduta dauden atzerritarrekin egiten du lan. Espetxearekin koordinatuta garatzen da programa, gizarte-lanerako departamentuaren bitartez. Kanpoan lagunik edo senitartekorik ez dutenei atzerri-gaietako aholkularitza eta laguntasun soziala eskaintzen diegu.

Komunitatearen mesedetan lana programaren bitartez, askatasuna kentzeko zigorra daukatenei gizartearen onerako lan egiteko aukera ematen diegu.

Proiektuak	Lagundutakoak
Kartzela eta berriro gizarteratzea	103
Komunitatearen mesedetan lana	120
GUZTIRA	223


Pobreziaren eta gizartetik baztertearen kontra

2010. urtean, esku-hartze sozialaren arloan egiten dugun lanaren baitan, kanpaina bakarrak egin ditugu, gaurko egoera ekonomikoak eramanda, pobreak jota edo larriki gizartetik baztertuta geratu direnei laguntza emateko.

Proiektuak	Lagundutakoak
Solidaritatezko elikagaiak	39
Kalteberentzako laguntza soziala	78
GUZTIRA	117

2010AN GIZARTE ESKU-HARTZEAN ARRETA ESKAINITAKO ERABILTZAILERAK

	Lagundutakoak
Etorkinak eta errefuxiatuak	2.418
Adineko pertsonak	586
Ezintasunaren bat duten pertsonak	162
Zailtasun sozialak dituzten umeak	381
Zailtasun sozialak dituzten emakumeak	4
komunitatearen mesedetan lana, kartzera eta gizarteratzea	223
Pobreziaren aurkako borroka	117
GUZTIRA	3.891



Osasuna, Sorospena eta Larrialdiak

Larrialdietan, prebentzio-zerbitzuetan, itsasoko salbamenduan eta hondartzetan, 20.174 pertsona artatu ditu Gurutze Gorriak 2010. urtean.

Osasuna, Sorospena eta Larrialdiak taldeak pertsona oroien bizi-eremua, osasuna eta duintasunaren alde egiten du lana. Horretarako, hiru jardun-arlotarako prestatuta dauden lan-taldeak ditugu gurekin: Lurreko eta Itsasoko Prebentzio Zerbitzuak, Itsas Salbamendua eta Larrialdietan esku-hartzea.

Itsas Salbamendua

Itsasoko Salbamendu sareak, SASEMAR sozietatearekin (Sociedad Estatal de Salvamento y Seguridad Marítima), eta SOS Deiak-ekin batera lan eginez, ontziei arrastoa jarraitzen eta bilatzen jarduten du, erreskate-lanak eta osasun-laguntza ematen du, atokian eramaten du eta laguntza teknikoa eskuratzen du, eta kutsaduraren aurkako lana ere egiten dugu, besteak beste. **2010. urtean 137 ekintza egin ditu guztira, eta 111 laguni lagundu die.**

Lurreko eta Uretako Prebentzio Zerbitzuak

2010. urtean ere hainbat langile eta boluntario eta hainbat baliabide jarri ditugu laguntza emateko denetarik ekimenetan: kirol-ekintzetan, ikuskizun eta kontzertuetan, kultur ekintza eta ekintza sozialetan, herriko festetan, bai eta hondartza, igerileku eta uretako kirolean. **Prebentzio-zerbitzuetan 9.613 lagun artatu ditugu 2010. urtean.**

Lur-zerbitzuak	Zerbitzuak	Lagundutakoak
Kirol-ekintzak	739	1.261
Ikuskizun eta kontzertuak	111	139
Ekintza kulturak eta sozialak	128	84
Herriko festak	171	365
GUZTIRA	1.149	1.849



Ur-zerbitzuak	Zerbitzuak	Lagundutakoak
Hondartzeko zaintza	1.421	7.649
Uretako kirol-lehiaketak	71	25
Igerilekuak	445	90
GUZTIRA	1.937	7.764

Larrialdietan esku-hartzea

Eusko Jaurlaritzako **Larrialdietako Osasun-garraioko Sareko (LOGS)** parte gara. SOS DEIAK 112 zerbitzuak koordinatzen ditu gure anbulantziak, urteko 365 egunetan, 24 orduetan. **2010. urtean 10.113 pertsonari lagundu diegu.**

LOGS	Lagundutakoak
Osasun-larrialdiak	8.019
Trafiko-istripuak	2.056
Beste istripuak	38
GUZTIRA	10.113

Larrialdietan Berehalako Erantzuna Emateko Taldeek (ERIE) larrialdi-egoera batean berehala jarduteko behar diren baliabideak eman eta bermatzen dituzte. Halako kontuetan aditu diren boluntarioek osatzen dute lan-taldea; lehorrean nahiz itsasoan galdu edo desagertu direnen arrastoa atera eta aurkitzen jarduten dira. Gaur egun, ERIE taldeetan Hondarribia, Donostia, Lasarte-Oria, Tolosa, Goierri, Deba Goiena, eta Deba-Mutrikuko batzarretako boluntarioak jarduten dira.

Osasun-komunitariorako sustatzailea eta atari solidarioa proiektuak irizpide sozialean herritarren parte-hartzeko eredia sustatzen du.

Osasun-komunitariorako sustatzailea eta atari solidarioa izeneko programaren bidez, Gurutze Gorriak jabekideen elkarrekin egiten du lan, bizilagunen batek arazo sozialen bat badu, hari laguntzen saiatzeko. Proiektuak herritarren parte-hartzea eta solidaritatea hartzen ditu lanabes, edozeinen auzoan sor daitezken arazo sozialei, krisiei edo gizartetik baztertzeari aurre egiteko. Halaber, zenbait ekintza eta hitzaldi ere antolatzen ditu, osasuna eta bizi-ohitura osasungarriak bultzatzeko.

Osasun-komunitariorako sustatzailea eta atari solidarioa proiektuak **4.093 atari solidario** ditu dagoeneko izena emanda, Gipuzkoan. 48.724 etxebizitzatan eman dugu ezagutzera proiektua, eta **1.296 atari-azotar** baditugu Osasun-komunitariorako Sustatzailea Sarean lanean.

2010ean, hainbat kanpaina bultzatu ditugu programa horren barruan, adibidez, Haitiko lurrikara, etxeko istripuak prebenitzeari buruz, energia-kontsumo jasagarriari buruz, eta udako istripuak prebenitzeari buruz. Horrez gain, etxeko auzotarrak dinamizatze

beste zenbait ekimen ere antolatu ditu, esate baterako, hitzaldi-egitasmoak edo tailerrak, eta **866 lagun bildu dira** ekimenotara.

Programaren barruan, halaber, Gurutze Gorriko boluntarioak osasun-komunitariorako sustatzaile bihurtzen dira. Boluntario horiek behar bezala prestatuta daude auzoko arazoak aztertzeko eta, gainera, erakundearen babesa ere badute arazoak konpontzen laguntzeko edo baliabide egokietara bideratzeko. 2010ean, proiektu honek **120 boluntario** izan ditu lanean. Guztira, **619 eskabide** kudeatu dira.



Boluntariotza eta prestakuntza

Boluntario-lana da gure erakundearen funtsezko printzipioetako bat, eta horren bidez sustatzen dugu gizarte-partaidetza solidarioa.

Boluntariotzaren parte-hartzea ezinbestekoa da Gurutze Gorriak Gipuzkoan egiten duen lana egin ahal izateko. 2010ean erakundearen jarduna, batez ere, krisi ekonomikoak jendeari eragindako kaltea arintzera bideratu da.

2010ean, guztira **2.469 boluntario** ibili zaizkigu laguntzen Gipuzkoan. Aurten, beste **258 lagun egin zaizkigu boluntario**; azkeneko urteetan izan dugun etorrera handienetakoa izan da.

Beste urtebetez ere, Boluntarioak Kudeatzeko Prozesuan aurrera egin dugu, boluntarioak erakundera erakarri eta bertan lan egiteko prozedurak homogenizatzeko helburuz. Eta hori guztia gure batzarren sareak metodologia bakarra eta bera izan dezan, boluntarioak erakarri, hartu edo motibatzeke.


2010. urtean hainbat ekintza burutu ditugu boluntarioen lanari ospea eta aurrera jarraitzeko kemena eman nahian. Besteak beste, hauek: 140. urteurrena zela-eta, boluntarioei esker ona adierazteko Adunan egindako ekitaldia, hainbat Herri Batzarretan boluntarioen lanari egindako gorespenak, Lehen Sorospenen Probin-tziako Lehiaketa zela-eta antolatutako boluntarioen topaketa edo Lehen Sorospenen Europako Lehiaketako Fase Nazionalean parte-hartzea.

BOLUNTARIOAK GIPUZKOAN	2010. urtea
Gizonezkoak	1.330
Emakumezkoak	1.139
GUZTIRA	2.469



Boluntario gehien duten eremuak honako hauek dira: sorospena eta larrialdiak, esku-hartze soziala, boluntariora, Gazteen Gurutze Gorria, prestakuntza, nazioarteko lankidetzeta, sentsibilizazioa, antolakuntza eta kudeaketa.

BOLUNTARIOTZA JARDUEREN ARABERA



2010. urtean nabarmen handitu da gizarteratzeko eta gizartean parte hartzeko prestakuntza.

Gurutze Gorriaren prestakuntza-eskaintza boluntarioentzat da, baina baita edozein herritarrentzat ere. Aurtengo helburuak boluntarioei zuzendutako prestakuntza handitzera eta ikastaro berriak eskaintzera bideratu ditugu, besteak beste, gizarteratzeari buruzko prestakuntza eta enplegu-lorpenerako ikastaroak areagotu dira.

2010ean, Gipuzkoako Gurutze Gorriak guztira **628 ikastaro** antolatu ditu: guztira, **6.235 ikasle** bildu dira. Prestakuntza baita Gurutze Gorriaren euskarrietako bat. Honi esker euren eginkizunak aurrera eramateko gaitasun handiko boluntarioak ditugu. Era berean, prestakuntzaren bidez, herria hobeto prestatzen dugu hurkoei laguntzen jakiteko, eta larrialdietan ekiteko prest egoteko.

Gaur egungo egoera sozioekonomiko honetan, ezin dugu ahaztu tresna ezin hobea dela prestakuntza, bai gizarteratzen laguntzeko bai banako nahiz talde ahulei enplegua lortzeko aukerak hobetzeko. Bereziki aipatzekoak dira Gipuzkoan martxan jarri diren bi enplegu-tailerrak, Espainiako Enplegurako Zerbitzu Publikoarekin eta Europako Funts Sozialarekin batera, osasun-zaindari laguntzaileak prestatu eta irakasteko, mendekotasunen bat dutenei behar bezala laguntzeko.

Halaber, azkeneko urteotan, asko handitu da lehen sorospenerako eta kanpoko desfibriladore automatikoak (KDA) erabiltzeko prestakuntza-eskaintza, bai partikularrentzat bai enpresentzat.




2010EKO PRESTAKUNTZA DATUAK

	2009	2010	Hazkundera
Eskeinitako ikastaro kopurua	553	628	12%
Ikasle kopurua	5.652	6.235	10%

BARNE ETA KANPO FORMAKUNTZA	KURTSOAK	IKASLEAK
Garapen Institutuzionalerako prestakuntza	38	498
Gizarte-partaidetza eta gizarteratzeko prestakuntza	304	2.140
Esku-hartzerako prestakuntza	28	419
Herritar guztientzako prestakuntza	258	3.178
GUZTIRA	628	6.235

Ikasle kopuruaren bilakaera



Nazioarteko Lankidetzaz

2010ean bi hondamendi izugarri izan dira: Haitiko lurrikara eta Pakistango uholdeak.

Gizalaguntza eta bitartekaritza ematea hondakin naturalen eta gatazka armatuen biktimei laguntzeko; horietan dira Gurutze Gorriaren helburu lehenak.

2010. urtea bi hondamendi latzek markatuta joan da; urtarrilean Haiti sarraskitu zuen lurrikara eta Pakistango uholdeak, abuztuaren. Gizalaguntzarako dispositiboa martxan jarri zuen Gurutze Gorriak, hondamendi horiei ahalik eta finen eta azkarren erantzuteko. Gipuzkoako Gurutze Gorritik hainbat ekintza burutu ditugu ezbehar larri horiei aurre egiten laguntzeko. Dirua biltzeko ere zenbait ekitaldi antolatu dira, hala nola informazio eta sentsibilizazio kanpainak burutu dira. Aurten ere garapenerako lankidetzako proiektuak bultzatzen jarraitu dugu Afrika, Latinoamerika, Europa eta Asiako zenbat herrialdetan, bertako erakundeekin laguntzari esker.

Gizartea balore humanitarioen gainean sentsibilizatzea eta hezteak, eta giza duintasunarekiko errespetua hobetzea da gure helburuetako bat. Horretarako, 2010. urtean hainbat informazio-eta sentsibilizazio-ekintza antolatu ditugu, bereziki herritarrentzat prestatuta. Besteak beste, hauek:

- Martxoan: Giza Eskubideei buruzko sentsibilizazioa pizteko ekintzak, eta “Milurteko 8 helburu” erakusketaren aurkezpena Lasarten.
- Apirilan: Lehen Sorospenen Probintziako Lehiaketaren barruan, gure erakundeak Nazioarteko Lankidetzaren arloan egiten duen lana aurkeztu genuen.
- Urrian: “Irun bakearen alde” jardunaldiaren barruan, Gurutze Gorria Haitin egiten ari den berreraikitze-lanaren berri eman dugu.

Horrez gain, ERU eta Logistika eta Sorospena 2 ikastaro ere antolatu ditugu, Gurutze Gorriaren larrialditan ekiteko unitatean sartu nahi dutenei prestakuntza emateko.

Gipuzkoa Haitiri emana

2010eko urtarrilaren 12an, Haiti ia erabat suntsitu zuen lurrikara batek. Hasiera-hasieratik, Gurutze Gorriak gizalaguntzako dispositiboa jarri zuen martxan, herritarren berehalako premiei erantzuteko. Aldi berean, eraikuntzako eta garapenerako proiektuak identifikatzeko eta planifikatzeko lana egin zuen, familiei aurre egiten laguntzeko, bere onera etorri arte.

Aurreneko unetik, eta hondamendiaren garrantzia jakin zenetik, milaka eta milaka pertsona herrialde karibearrekin solidarizatu ziren. Eta gipuzkoarren solidaritate horri esker, Gurutze Gorriak 300.000 eurotik gora bildu ditu banakoek, elkarteek, banku-erakundeek, eta udaletxeek eta Foru Aldundiak egindako dohaintzei esker. Izan ere, hainbat pertsona eta elkarte hurbildu dira Gurutze Gorrira, lurrikara suntsitzailearen aurrean beren laguntza ematera. Dohaintza horietatik, % 75 banakoak eman dituzte eta gainerako, % 25, erakundeek. Bildutako kopurua, osoz, Haitirako irekitako nazioarteko emergentzia-kontura joan da. Dirua ura eta saneamendua lortzeko, egoitzak jartzeko eta herritarren azpiegiturak berreraikitzeke erabili da.

Hainbat ekintza izan dira, erakunde, elkarte, organizazio, enpresa eta banakoek antolatutakoak, Gurutze Gorria aukeratu dutenak laguntza horiek kudeatzeko. Besteak beste:

- Euskadiko Orkestra Sinfonikoa eta Donostiako Orfeoiak kontzertu solidarioa eman zuten. Entzunaldi jendetsu hura egiteko, Kutxa, Kursaal eta Diario Vasco-ren laguntza izan genuen.
- Martutenen espetxeratuek ere artisautza-lanak eman zituzten, guk merkatu solidarioan salgai jartzeko.
- Sport Mundi elkarteak zenbait kirol-ekintza antolatu zituen, bertan dirua bildu eta Haitira bidaltzeko.
- Irungo udalak Haitiren aldeko egun solidarioa antolatu zuen.
- Gipuzkoako Musika Eskolek musika- eta dantza-eguna antolatu zuten.
- Sostoa Abesbatzak kontzertu solidarioa eman zuen.
- Bellota erreminta enpresak 16.300 kilo erreminta bidali zituen, Haiti berreraikitzen eta ura saneatzen erabiltzeko.



Gazteen Gurutze Gorria sailak haur eta gazteei zuzendutako jarduerak sustatzen ditu euren garapen integrala bultzatzeko.

Gure helburuen artean dugu sentsibilizazioa, prebentzioa, hezkuntza, parte-hartzea eta gizartearen esku-hartzea sustatzea gizarte-arrisku edota gatazkan dauden haur eta gazte taldeekin.

2010. urtean antolatu ditugun ekintzen artean, duela gutxi egiten hasi garen bat aipatu nahi genuke, ospitalean dauden umeentzako laguntza, Zumarragako ospitalean ematen duguna. Gizarteratzeko programaren barruan sortu dugu ekimena.

Gazteen Gurutze Gorria (GGG) Gurutze Gorriaren gazteen atala da, 16 eta 30 urte bitarteko gazte boluntarioz osatua. GGGren jarduera transformatzailea, haur eta gazte ahulenei babesa emateaz arduratzen da batez ere, euren garapen integrala eta autonomia pertsonala bultzatuz eta sustatuz, hezkuntza, parte-hartze eta esku-hartze sozialaren bidez.

Gure helburuetako bat gizartean parte-hartzea bultzatzea izanik, parte-hartzeari buruzko programatik bideratuta, aisialdiko eta denbora libreko ekintza hezitzaileak ere egin ditugu. Ikastaro osoko lanari bukaera ezin hobea emateko, udalekuak antolatzen ditugu urtero, duela sei urtetatik hona. Badira 50 ume inguru, neska eta mutil, gure udalekuetan biltzen direnak. Zorionez, begiraleen eta boluntarioen laguntza izaten dugu udalekuotan, ekimena aurrera eramatea ezinezkoa bailitzateke bestela.

Ingurumena

2010. urtean ingurumen-arloko ekintza gehiago burutu ditugu.

Gurutze Gorriaren Ingurumen Planak badu helburu nagusi bat: ingurumenaren inguruko hezkuntza eta ikuspegia bultzatzea Gurutze Gorriaren jardun-eremu guztietan, ikuspegi hori izan dadin ardatz nagusia eta zuzeneko ekintza, kalteberatasuna eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko.

Aurten, bada, tarteka-martekako ekintzak egin orde, egitura sendoa eta jarraipen handiagoa ematen saiatu gara ingurumen-arloan egin ditugun ekintzei.

Hiru jardun-ildo nagusitan biltzen dira denak ere:

- Ingurumen kalitatea
- Ingurumen-hezkuntza eta -sentiberatzea.
- Ingurumenaren babesa eta hobekuntza.

Aurtengo ekintzak honako proiektu hauen barruan garatu ditugu:

Sentsibilizazioa eta informazioa

Birziklatzeari eta berrerabiltzeari buruzko ingurumen-tailerrak, Gipuzkoako hainbat herritan.

Uraren erakusketa, eta urari buruzko tailerrak Lasarten.

Hondamendietan esku-hartzea

Kutsaduraren kontrako borroka Itsas Salbamenduan, Zarautzen.

Ingurua onera ekarri eta hobetzea

Pasaiaiko Portuan giroa eta ingurua hobetzeko lana.

Komunikazioa eta irudia

2010. urtean, informazioa garden eta garbi ematearen alde egin dugu berriz ere, eta komunikatzeko eta berri emateko baliabideak eta erremintak berriak gehitu ditugu.

Hala, gure web orriaren diseinua berritu dugu aurten (www.cruzroja.gipuzkoa.com). Diseinu berriagoa eta erabilerrazagoa dauka orain. Bertako edukiak hobeto antolatu ditugu, baita egitura ere, eta beste zenbait atal ere jarri ditugu, Gipuzkoako Gurutze Gorriak egiten duen lanari buruzko informazioa zabaltzeko.

140. urteurrena ospatzeko ekintzak direla-eta, 20 orriko **gehigarria** argitaratu dugu **El Diario Vasco** egunkarian, gure historiaren berri eta gure lanaren berri emateko. Halaber, uzta-laren 8an **“Contigo en la playa”** irrati-programan atera ginen, **Punto Radio irrati**ko **Protagonistas programaren barruan**. Programa horrek berak, gainera, 2010eko Protagonistas sarietako dedikazioaren saria eman dio Gipuzkoako Gurutze Gorriari.

2010. urtean, **1.448 aldiz agertu gara komunikabideetan** (berrietan nahiz iragarkietan): 349 aldiz prentsan, 616 aldiz irratietan, 452 aldiz komunikabide digitaletan eta 31 aldiz telebistan. 31 komunikatu eta dossier helarazi dizkiegu komunikabideei, eta prentsa-aurrebat eman dugu.

Komunikabideez ari garela, eskerrak eman nahi dizkiegu Haitirako laguntza jasotzeko Gurutze Gorriak egin behar izan zituen deietako iragarki-tarteak doan utzi dizkiguten komunikabideei.

Cruz Roja - Gurutze Gorria
Gipuzkoa

Inicio Quiénes Somos Que hacemos Colabora Sala de prensa Blog Asambleas

EMERGENCIA: Terremoto en Haití
COLABORA

Intervención Social
Salud y Socorros
Voluntariado
Formación
Cooperación Interna
Cruz Roja Juventud

Házte Socio
Haz una donación
Hazte Voluntario

actuanado en TODO EL

ÚLTIMAS NOTICIAS
> EMERGENCIA EN HAITÍ

FORMACIÓN
+ AGENDA DE CURSOS

140
Cruz Roja cumple 140 años en Gipuzkoa

Reconocimiento institucional

La Diputación Foral de Gipuzkoa recibió a la Cruz Roja como agradecimiento a los 140 años de actividad que ha venido desarrollando en el territorio

El reconocimiento a la Cruz Roja por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa es un hito que se produce en un momento clave para la institución. El reconocimiento se produce en el marco de las actividades conmemorativas que se están realizando en el territorio. El reconocimiento se produce en el marco de las actividades conmemorativas que se están realizando en el territorio.

Protagonistas en 'Contigo en La Playa'

Gipuzkoako Gurutze Gorria

Donostia

Bulego probintziala

Ategorrieta Etorbidea, 10 - 20013 Donostia-San Sebastián
Tel: 943 22 22 22 / Fax: 943 32 65 19

Inmigrazio Zentro Integrala

Zarategui ibilbidea, 72 - 20015 Donostia-San Sebastián
Tel: 943 32 77 95 / Fax: 943 32 65 19

Batzar lokala

Ategorrieta Etorbidea, 10 behea - 20013 Donostia-San Sebastián
Tel: 943 32 09 89 / Fax: 943 32 10 55

Anbulantzi postua

Tolosa Etorbidea, 89 - 20018 Donostia-San Sebastián

Itsas Salbamendua

Muelle z/g - 20003 Donostia-San Sebastián
Tel: 943 43 15 07

Presidentea: Enrique Samaniego Arrillaga

Jarduera nabarmenak: Lurreko prebentzio-zerbitzuak, LOGS, mendiko bilaketa eta salbamendua, larrialdiak, garraio egokitua, etorkinen hasierako harrera eta gizarteratzea, prestakuntza, enplegu-tailerra, nazioarteko lankidetzeta, Komunitatearen mesedetan lana, etxeko laguntza osagarria, gazteria, enplegu-plana, Komunitatearen sustatzailea eta portal solidarioa, itsas salbamendua, hondartzetako sorospena eta hondartzetan lagundutako bainua.

Deba Garaia

Elorregui Auzoa z/g - 20560 Oñati
Tel: 943 76 55 76 / Fax: 943 76 08 12

Presidentea: Clemente Domingo Malvadi

Jarduera nabarmenak: Lurreko prebentzio-zerbitzuak, LOGS, mendiko bilaketa eta salbamendua, larrialdiak, garraio egokitua, prestakuntza, nazioarteko lankidetzeta, Komunitatearen mesedetan lana eta gazteria.

Urola Garaia

Labeaga, 41 - 20700 Urretxu
Tel: 943 72 53 64 / Fax: 943 72 57 09

Presidente: Tomás Landa Gámiz

Jarduera nabarmenak: Lurreko prebentzio-zerbitzuak, larrialdiak, garraio egokitua, mendiko bilaketa eta salbamendua, komunitatearen mesedetan lana, prestakuntza eta gazteria.

Andoain

Plazaola, 2 (egoitza). 4 posta kutsatila
Paseo Txistoki z/g (postua) - 20140 Andoain
Tel: 943 59 44 77

Presidente: Pedro Unanue Orcoyen

Jarduera nabarmenak: Lurreko prebentzio-zerbitzuak, garraio egokitua, larrialdiak eta Komunitatearen mesedetan lana.

Azkoitia

Herriko Enparantza (egoitza). 4 posta kutsatila
Alcibar auzoa z/g (postua) - 20720 Azkoitia
Tel: 943 85 32 97

Presidente: Aitor Errazu Uría

Jarduera nabarmenak: Lurreko prebentzio-zerbitzuak, mendiko bilaketa eta salbamendua, larrialdiak, garraio egokitua, prestakuntza, Komunitatearen mesedetan lana eta igerilekutako sorospena.

Goierrri

Urbialde Plaza,5-6 (egoitza)
Ittola industrialdea, pab. B-7(postua) - 20200 Beasain
Tel: 943 16 21 50 / Fax: 943 16 15 16

Presidente: José M. Baztarrika Ugartemendia

Jarduera nabarmenak: Enplegu-plana, garraio egokitua, etorkinen hasierako harrera eta gizarteratzea, larrialdiak, asteburuko LOGS, mendiko bilaketa eta salbamendua, lurreko prebentzio-zerbitzuak, prestakuntza, enplegu-tailerra, komunitatearen sustatzailea eta portal solidarioa, nazioarteko lankidetzeta, Komunitatearen mesedetan lana eta gazteria.

Deba

Calbeton Etorbidea, z/g - 20820 Deba
Tel: 943 19 10 32 / Fax: 943 19 18 48

Presidente: M.^a Jesús Urgell Ubau

Jarduera nabarmenak: Hondartzetako sorospena, hondartzetan lagundutako bainua, mendiko bilaketa eta salbamendua, lur eta uretako prebentzio-zerbitzuak, larrialdiak, komunitatearen mesedetan lana eta prestakuntza.

Eibar-Ermua

PA-8 autopista ordainlekua - 48260 Ermua
Tel: 943 17 62 48 / Fax: 943 17 17 17

Presidentea: Pedro Pérez Fernández

Jarduera nabarmenak: Lurreko prebentzio-zerbitzuak, larrialdiak, garraio egokitua, komunitatearen sustatzailea eta portal solidarioa, enplegu-plana, prestakuntza, etorkinen hasierako harrera eta gizarteratzea, komunitatearen mesedetan lana eta gazteria.

Elgoibar

Pl. Padre Aguirre, 3 - 20870 Elgoibar
Tel: 943 74 38 64 / Fax: 943 74 42 74

Presidentea: Txomin Zabaleta Aranberri

Jarduera nabarmenak: Lurreko prebentzio-zerbitzuak, larrialdiak, LOGS, komunitatearen sustatzailea eta portal solidarioa, prestakuntza, etxeko laguntza osagarria eta gazteria.

Hondarribia

Molla Ibilbidea, 7 - 20280 Hondarribia
Tel: 943 64 17 27 / Fax: 943 64 59 46

Presidentea: Iñaki Sagarzazu Othaitz

Jarduera nabarmenak: Itsas salbamendua, lur eta uretako prebentzio-zerbitzuak, LOGS, hondartzetako sorospena, hondartzetan lagundutako bainua, mendiko bilaketa eta salbamendua, larrialdiak eta prestakuntza.

Irun

Euskal Herria Etorbidea, 14 1,2 ateak - 20300 Irun
Tel: 943 62 11 62 / Fax: 943 62 90 92

Presidentea: David Martín Alli

Jarduera nabarmenak: Lurreko prebentzio-zerbitzuak, garraio egokitua, enplegu-plana, gizarte laguntzak, etorkinen hasierako harrera eta gizarteratzea, komunitatearen mesedetan lana eta prestakuntza.

Lasarte

Adarra, 1 behea - 20160 Lasarte
Tel: 943 10 30 22 / Fax: 943 55 22 13

Presidente: José David Muñoz González

Jarduera nabarmenak: Lurreko prebentzio-zerbitzuak, garraio egokituak, mendiko bilaketa eta salbamendua, larrialdiak, prestakuntza eta gazteria.

Pasaia

Portua z/g. 87 posta kutsatila - 20110 Pasaia

Tel: 943 35 41 51 / Fax: 943 39 08 81

Presidente: Garbiñe García Torrado

Jarduera nabarmenak: Itsas salbamendua, uretako prebentzio-zerbitzuak, larrialdiak, eta prestakuntza.

Errenteria

San Sebastián,3 - 20100 Errenteria

Tel: 943 34 02 04 / Fax: 943 34 02 04

Presidente: M^a José Martínez Delgado

Jarduera nabarmenak: Komunitatearen sustatzailea eta portal solidarioa, lurreko prebentzio-zerbitzuak, Komunitatearen mesedetan lana eta prestakuntza.

Tolosa

Aita Larramendi – Villa Arkaute - 20400 Tolosa

Tel: 943 67 48 88 / Fax: 943 67 52 30

Presidente: Asier Peñagarikano Zubeldia

Jarduera nabarmenak: Gaixotasun mentalen eguneko zentrua, LOGS, lur eta uretako prebentzio-zerbitzuak, larrialdiak, mendiko bilaketa eta salbamendua, etxeko laguntza osagarria, komunitatearen mesedetan lana eta prestakuntza.

Zarautz

Nafarroa kalea, 23 - 20800 Zarautz

Tel: 943 83 18 63 / Fax: 943 83 53 08

ESSMA - Getaria

Itsas salbamenduko eskola

B mailako ontzien erabilerako kurtsoak

Portu kalea - 20808 Getaria

Tel: 943 14 02 51


Presidente: Félix Zubia Olaskoaga

Jarduera nabarmenak: Itsas salbamendua, lur eta uretako prebentzio-zerbitzuak, mendiko bilaketa eta salbamendua, hondartzetako eta igerilekutako sorospena, hondartzetan lagundutako bainua, larrialdiak, garraio egokitua, gizarte laguntzak, komunitatearen mesedetan lana eta prestakuntza.

Ekonomia-kudeaketa

2010EKO JARDUERAREN GASTUAK

JARDUERA	GASTUA - €	%
Gazteria	28.281,29	0,27%
Boluntariotza eta Prestakuntza	1.646.335,33	15,70%
Gizarte Esku-hartzea	3.658.973,62	34,89%
Sorospena eta Larrialdiak	3.178.170,16	30,31%
Administrazioa - Kudeaketa	888.323,67	8,47%
Konponketa eta kontserbazioa	124.802,12	1,19%
Nazioarteko lankidetzak, solidaritate-funtsa eta besteak	961.151,93	9,17%
TOTAL	10.486.038,12	100,00%




2010EKO FINANTZIAZIO-ITURRIAK

	ZENBATEKOA - €	%
PRESTATURIKO ZERBITZUAK	6.585.556,21	57,99%
FUNTS-BILKETA	1.371.655,11	12,08%
DIRU-LAGUNTZA ETA DOHAINTZA PRIBATUAK	3.057.284,63	26,92%
KUDEAKETAKO BESTE SARBIDEAK	128.636,45	1,13%
FINANTZIARIAK	47.325,94	0,42%
KAPITAL DIRU-LAGUNTZAK ETA BESTE	166.649,84	1,47%
GUZTIRA	11.357.108,18	100,00%
FUNTS-BILKETAREN BANAKAPENA		
Urregorri Zozketa	410.663,09	29,94%
Bazkideak	945.145,43	68,91%
Besteak	15.846,59	1,16%
GUZTIRA	1.371.655,11	100,00%

GIPUZKOAKO GURUTZE GORRIKO BAZKIDEAK

Bazkide kopurua	
2006	8702
2007	9554
2008	10.388
2009	11.650
2010	13.422

URTEZ URTEKO BAZKIDEEN BILAKAERA



Kalitatea

Gurutze Gorrian, kalitatearen kudeaketak oinarri duen kalitate politika erakundearen helburu eta ikuspegirantz zuzenduta dago.

VI. Batzar Nagusiak zehaztutako nazioarteko estrategiekin koherente izateko, kalitate politika erabiltzaileen eta parte hartzen duten beste parteen beharrak, itxaropenak eta poztasuna identifikatzean datza, bai eta etengabe hobetzean eta prozesuen bidezko ikuspegian oinarritutako metodologia garatzean ere. Betiere, gure kudeaketan konpromiso etikoa eta ingurumenari dagokiona errespetatuz.

Plan, programa eta proiektuetan kalitatea ezartzeko, kalitate-arau eta -sistemak hartzen ditugu babestzat, hala nola, ISO 9001 eta EFQM.

Erakundean ezarritako kalitate-sistema guztiak mantendu dira estatu-mailan eta probintzia- eta herri-mailan Gipuzkoan. Horiek erakundean bertan ikuskatu dira, eta egiaztatu direnak erakunde independente batek ikuskatu zituen, Espainiako Normalizazio Erakundeak (AENOR), eta aldeko emaitza eman zuen.

Esparrua	Eremua	Araua / Sistema
Mugikortasun urria daukatenentzako garraio egokitua	Probintzia eta Udalerria	ISO 9001:2008 ER -1727/2008
Gipuzkoako hondartzetan Prebentzio, Salbamendu eta Sorospen eta bainu lagunduko zerbitzua	Probintzia eta Udalerria	ISO 9001:2008 ER -0929/2009
Prestakuntzaren kudeaketa	Estatu-maila	ISO 9001:2008 ER -0385/2007
Boluntariotzaren kudeaketa	Estatu-maila	ISO 9001:2008
Enplegu-plana	Estatu-maila	ONGconcalidad

Finantzatzaile eta laguntzaileak



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



UNIÓN EUROPEA
Fondo Social Europeo
Invierte en tu futuro



Eskerrak

Gurutze Gorritik erakunde publiko, enpresa, finantza-entitate eta fundazioen lankidetzaz eskertu nahiko genuke, beraien ekarpenei esker proiektu asko aurrera atera ahal izan ditugulako.

Eusko Jaurlaritza | Gipuzkoako Foru Aldundia | Donostiako Udala | Irungo Udala | Hondarribiako Udala | Errenteriako Udala | Lasarteko Udala | Andoaingo Udala | Tolosako Udala | Beasaingo Udala | Urretxuko Udala | Arrasateko Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Bergarako Udala

| Eibarko Udala | Ermuako Udala | Elgoibarko Udala | Debako Udala | Zarauzko Udala | Getariako Udala | Zumarragako Udala | Azkoitiko Udala | SPEE | Sasemar | CAN | Euskadiko Kutxa | La Caixa | Nokia | Enpresa pribatu, partikularrak, dohaintza-emaile eta bazkide laguntzaile guztiei MILA ESKER.

Gizatasuna

Guda-lekuetan zauritu guztiei, inor baztertu gabe, laguntza ematearen kezka sorrarazi duen Gurutze Gorria eta Illagierdi Gorriaren nazioarteko mugimenduak ahaleginak egiten ditu, bai nazioarteko bere alderdian eta bai nazio barrukoan, gizakien sufrimendua aurreikusten eta arintzen, edozein eratako delarik ere sufrimendu horren eragilea. Bizitza eta osasuna babestera jotzen du eta gizakia errespetatzera. Elkar ulertzea, laguntasuna, lankidetzeta eta herrien arteko bake iraunkorra bultzatzen ditu.

Inpartzialtasuna

Naziotasun, arraza,erlijio, egoera sozial edo iritzi politikoaren arabera bereizketarik ez du egiten. Pertsonen, duten sufrimenduaren arabera, laguntza ematera dedikatzen da, premiak estaliz eta larriren lehentasuna emanez

Neutraltasuna

Denen konfidantza izateko, Mugimenduak ez du gatazketan parte hartzen eta politika, arraza, erlijioa edo ideologia tarteko direla sortzen diren gorabeheretan ez da inola ere sartzen.

Independentzia

Mugimendu independentea da. Agintariei laguntza ematen die beren egiteko humanitarioetan, herrialde bakoitzeko legeriara egokituta. Nazio Erakundeek, halere, beren autonomia izan behar dute, betiere Mugimenduaren printzipioetan oinarrituta, beren ekimena gauzatu ahal izateko

Boluntariotza

Boluntarioz osatutako sorospen-erakundea da, interes gabeko jarduneko

Batasuna

Herrialde bakoitzean Gurutze Gorriko edo Illagierdi Gorriko Elkarte bakarra egon daiteke, denei irekia izan behar duena eta lurralde osora zabaldu behar duena bere jardun humanitarioa

Unibertsaltasuna

Gurutze Gorria eta Illagierdi Gorriaren Nazioarteko Mugimendua unibertsala da eta bere baitako erakunde guztiek berak eta elkarri laguntzeko betebeharra dute.